

**NAFARROAKO GOMA GAINEKO 4X4 SOKATIRA
TXAPELKETA 2026
EGUTEGIA ETA ARAUTEGIA**

**CTO. NAVARRO DE SOKATIRA SOBRE GOMA 4X4
CALENDARIO OFICIAL Y REGLAMENTO 2026**



2026ko NAFARROAKO GOMA GAINeko SOKATIRA TXAPELKETA -- 4X4
CAMPEONATO NAVARRO SOKATIRA GOMA 2026 -- 4X4

➔ **EGUTEGIA // Calendario:**

DATA	Pisaketa	PISUAK	GOMA ETA TIRALDI KOPURUAK
Apirilak 18 Larunbata 17:00 Antsoain	15:00-16:00	Gizonezkoak 320 – 1J Emakumezkoak 255 – 1J 20 urtez azpikoak 280 – 1J	<i>Gizonek 3 tiraldi</i> <i>Emakumeek 36 tiraldi</i> <i>Sub20 3 tiraldi</i> <i>Bi goma berri jarriko dira. Emakumeak hasiko dira tiratzen bi gometan, gizonezko eta gazteen tiraldiak tartekatzen joanen direlarik.</i>
Apirilak 26 Igandea 11:30 Doneztebe	9:30-10:30	Gizonezkoak 320 – 2J Emakumezkoak 255 – 2J 20 urtez azpikoak 280 – 2J	<i>Gizonek 3 tiraldi</i> <i>Emakumeek 36 tiraldi</i> <i>Sub20 3 tiraldi</i> <i>Bi goma berri jarriko dira. Emakumeak hasiko dira tiratzen bi gometan, gizonezko eta gazteen tiraldiak tartekatzen joanen direlarik.</i>
Maiatzak 9 Larunbata 17:00 Betelu	15:00-16:00	Gizonezkoak 300 – 1J Emakumezkoak 240 – 1J	<i>Gizonek 10 tiraldi</i> <i>Emakumeek 21 tiraldi</i> <i>Bi goma berri jarriko dira, bat gizonentzat eta bestea emakumeentzat. Gizonek bukatzekin emakumeak bi gometan ariko dira.</i>
Maiatzak 16 Larunbata 17:00 Elizondo	15:00-16:00	Gizonezkoak 300 – 2J Emakumezkoak 240 – 2J Kadeteak 280 – 1J	<i>Goma 1 (berria): Gizonek 10 tiraldi</i> <i>Goma 2 (berria): Emakumeek 21 tiraldi</i> <i>Goma 3 (zaharra): Kadeteak 21 tiraldi</i> <i>Gizonek bukatzekin emakumeak bi gometan ariko dira.</i>
Maiatzak 30 Larunbata 17:00 San Martin De Unx	15:00-16:00	Mistoak 280 – Jardunaldi bakarra Kadeteak 280 – 2J	<i>Goma 1 (berria): Mistoak 14 tiraldi</i> <i>Goma 2 (berria): Mistoak 14 tiraldi</i> <i>Goma 3 (zaharra): Kadeteak 21 tiraldi</i>

➔ **TALDE PARTE-HARTZAILEAK // Equipos Participantes:**

GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK		MISTOAK	20 URTEZ AZPIKOAK	KADETEAK
320	300	255	240	280	280	280
Berriozar	Antsoain	Amaiur	Amaiur	Antsoain	Antsoain A	Antsoain A
B.Gazte	Berriozar	Antsoain	Antsoain A	Araxes	Antsoain B	Antsoain B
Txantrea	Beti-Gazte	Araxes A	Antsoain B	Berriozar A	Berriozar	Antsoain C
	Txantrea A	Araxes B	Araxes	Berriozar B		Basaburua A
	Txantrea B	Berriozar A	Berriozar	Beti-Gazte		Basaburua B
		Berriozar B	Txantrea A	Txantrea A		Berriozar A
		Beti-Gazte	Txantrea B	Txantrea B		Berriozar B
		Txantrea A		Txantrea C		
		Txantrea B				
3	5	9	7	8	3	7

➔ **KIROL INSTALAZIOAK eta ZABORRA // Instalaciones Deportivas y basura:**

Bakoitzak bere zaborra bildu behar du eta kirol-instalazioak garbi utzi // Cada cual debe recoger su basura y dejar las instalaciones limpias.

→ TXAPELKETAKO ARAUTEGIA // Reglamento del Campeonato:

→ Lau pertsonaz osatutako taldeak (kadete mailan eta 20 urtez azpikoan bost izan daitezke, ezarritako pisuaren barruan sartzen badira), 3 metrotara lehiatuko dira.

→ Kadete mailan izan ezik, gainontzeko kategorietan 15 urtetik beherako kirolariek ezin izanen dute parte hartu.

→ Jardunaldi bakoitzean, pisaketan dauden edozein taldeetako kirolari bat hartu ahal izanen da.

→ GOMA KOPURUA:

Lehen hiru jardunaldietan 2 goma jarriko dira eta azken bi jardunaldietan 3.

→ PISAKETAK:

Taldeak pisatuta egon beharko dute, txapelketa hasi baino ordu bat lehenago. Talderen batek arazoren bat edukido balu pisaketa ordurako iristeko, Federaziora abisatu beharko luke egun batzuk lehenagotik.

Pisua prest egon beharko du pisaketa ireki baina 15 minutu lehenago.

→ LIZENTZIAK:

Partaide guztiek lizentzia aurkeztu behar dute. Kirolari batek ez badu lizentzia aurkezten eta hurrengo egunetan berrituta ez duela frogatzen bada, bere taldea automatikoki kanporatua izango da, **pisu horretan txapelketa guztirako**.

→ 320K / 300K Gizonak:

Bi jardunaldi jokatuko dira liga sistema bidez. Bi jardunaldietako puntuak batu ondoren, lehen bi sailkatuek finala jokatuko dute (bigarren jardunaldia bukatu ondoren).

→ 255K / 240K Emakumeak:

Bi jardunaldi jokatuko dira liga sistema bidez. Bi jardunaldietako puntuak batu ondoren, lehen bi sailkatuek finala jokatuko dute (bigarren jardunaldia bukatu ondoren).

→ 280 kilo (mistoa):

Jardunaldi bakarra jokatuko da multzo bakarrean (denak denen aurka). Tiraldi guztiak bukatzekin, lehen bi sailkatuen arteko Finala jokatu da.

→ Equipos compuestos por 4 personas (en la categoría cadete y sub20 pueden ser 5, siempre y cuando entren dentro del peso establecido). Se competirá a 3 metros.

→ Excepto en la categoría de cadetes, no podrán participar deportistas menores de 15 años.

→ Por jornada, se puede coger un tirador de cualquiera de los equipos que estén presentes en el pesaje.

→ NUMERO de GOMAS:

En las tres primeras jornadas se colocarán 2 gomas en las dos últimas 3.

→ PESAJES:

Los equipos deberán estar pesados 1 hora antes del comienzo de la prueba. En el caso de que algún equipo tuviese problemas para llegar al pesaje de alguna jornada, se avisará con antelación a la Federación.

La báscula deberá estar preparada 15 minutos antes del comienzo del pesaje.

→ LICENCIAS FEDERATIVAS:

Todos los participantes deben presentar la licencia. Si un deportista no presenta licencia y en los días siguientes se demuestra que no la tiene renovada, su equipo será automáticamente descalificado **en ese peso para el resto del Cto**.

→ 320K / 300K Masculino:

Se disputarán dos jornadas mediante el sistema de liga. Después de finalizar la última jornada y tras sumar los puntos de todas las jornadas, los dos primeros clasificados jugarán la final.

→ 255K / 240K Femenino :

Se disputarán dos jornadas mediante el sistema de liga. Después de finalizar la última jornada y tras sumar los puntos de todas las jornadas, los dos primeros clasificados jugarán la final.

→ 280 (mixto):

Se disputará una sola jornada y en un solo grupo (todos contra todos). Tras finalizar todas las tiradas se disputará la Final entre los dos primeros clasificados.

➔ **280 kilo (20 urte azpikoak):**

Bi jardunaldi jokatu dira liga sistema bidez. Bi jardunaldietako puntuak batu ondoren, lehen bi sailkatuek finala jokatu dute (bigarren jardunaldia bukatu ondoren).

Txapelketa honetan 2007-2011 urteetan jaiotako gazteek hartu ahal izanen dute parte.

Taldea 4-5 tiralariz osatua egon daiteke eta gutxienez emakume batek parte hartu beharko du.

➔ **280 kilo (kadeteak):**

Bi jardunaldi jokatu dira liga sistema bidez. Bi jardunaldietako puntuak batu ondoren, lehen bi sailkatuek finala jokatu dute (bigarren jardunaldia bukatu ondoren).

Txapelketa honetan 2010 eta 2011 urteetan jaiotako gazteek hartu ahal izanen dute parte. Salbuespen gisa taldeek haur mailako kirolariak sartu ahal izanen dituzte, beti ere haur mailakoak talde osoaren erdia baino gutxiago badira.

Taldea 4-5 tiralariz osatua egon daiteke eta gutxienez emakume batek parte hartu beharko du.

➔ **ERRETXINA / MAGNESIO HAUTSAK:**

Erretxina erabiltzea debekatuta dago, bakarrik magnesio hautsak erabili ahal izango dira.

Tiralari bati erretxina detektatzen bazaio (edozein tokitan: jantziak, eskuak, zapatilak e.a...), bere taldea automatikoki kanporatua izango da jardunaldi horretarako.

➔ **ATSEDENAK:**

Talderen bati bi aldiz jarraian tiratzea tokatzen bazaio, gutxienez 5 minutu eta gehienez 6 minutuko atsedena hartzeko eskubidea izanen du. Taldeen akatsengatik tiraldia nuloa denean, EZ zaie atsedenek emanen.

➔ **BABESGARRIAK:**

* 320, 300, 255, 240, 280 mistoa eta 20 urtez azpikoak: Indarrean dagoen TWIFen araudian adierazitakoa aplikatuko da. Telazko gerrikorik ezin izanen da erabili.

* Kadeteak: Telazko gerrikoak erabili ahal izanen dira. Oihalezko babesgarriaren neurriak: 5 metroko gehienezko luzera eta 25 zentimetroko gehienezko zabalera. Tolestu ahal izango da. Tiralari bat harrapatzen bada 5 metro baino luzeagoko gerriko babesgarria darabilela, deskalifikatua izango da pisu horretan txapelketa osorako.

Oihalezko gerrikoaren lodiera ohizkoa izango da.

➔ **280 kilos (sub20):**

Se disputarán dos jornadas mediante el sistema de liga. Después de finalizar la última jornada y tras sumar los puntos de todas las jornadas, los dos primeros clasificados jugarán la final.

Podrán participar deportistas nacidos en los años 2007-2011.

El equipo estará compuesto por 4-5 tiradores y como mínimo tendrá que participar una mujer.

➔ **280 kilos (cadete):**

Se disputarán dos jornadas mediante el sistema de liga. Después de finalizar la última jornada y tras sumar los puntos de todas las jornadas, los dos primeros clasificados jugarán la final.

Podrán participar deportistas nacidos en los años 2010 y 2011. Como excepción se permitirá a cada equipo incluir participantes de la Categoría Infantil siempre y cuando el número de estos sea menor que la mitad del número total de participantes del equipo.

El equipo estará compuesto por 4-5 tiradores y como mínimo tendrá que participar una mujer.

➔ **RESINA / MAGNESIO:**

Queda prohibido el uso de resina, únicamente se podrá usar polvos de magnesio.

Si se detecta resina en un tirador (en cualquier parte: ropas, manos, zapatillas etc...), su equipo será automáticamente descalificado para la jornada en curso.

➔ **DESCANSOS:**

Si a un equipo le toca tirar dos veces seguidos, tendrá derecho a un descanso de 5 minutos como mínimo y de 6 como máximo. Cuando se declare una tirada nula por infracciones de los equipos, NO se concederán descansos.

➔ **PROTECTORES:**

* Categorías 320, 300, 255, 240, 280 mixto y sub20: no se podrán utilizar cinturones de tela (se aplicará lo indicado en el reglamento de la TWIF en vigor).

* Cadetes: Se podrán utilizar cinturones de tela. Medidas del protector de tela (gerriko): longitud máxima de 5 metros y anchura máxima de 25 centímetros. Se podrá doblar. Si se detecta que un tirador está utilizando un gerriko protector de más de 5 metros, será descalificado en ese peso para el resto del Campeonato. El grosor del gerriko será el normal.

* Bakarrik babesgarri bat eraman ahal izango da eta beti kamisetaren kanpotik.

* Kamisetak sendotu ahal izango dira kanpoaldetik felpa, goma, larru.... jarritz. Material hori kamisetara itsatsita/bat eginda/josita egongo da.

* **Atzelarien babesgarriak:** babesgarri biak eraman ahal izango dute (oihalezkoa eta larruzkoa). Babesgarriak 5 zentimetroko gehieneko lodiera uniforme izango du, takorik, pitzadurarik, zulorik edo toperik ..e.a... gabe. Soka ikusgai egongo da denbora guztian.

➔ **ORDEZKAPENA:**

Ordezkapen bakarra egin ahal da.

Txapelketa mistoan neska bat ateratzen bada, neska sartu beharko du eta mutil bat ateratzen bada, mutila sartuko da. Kadeteetan eta 20 urtez azpikoan libre izanen da baina beti bermatuz gutxienez neska bat tiratzen ariko dela.

➔ **OINETAKOAK:**

Kategoria absolutuetan (320, 300, 280-mistoa, 255 eta 240) eta 20 urtez azpikoan zola lisodun zapatilak erabiliko dira (Twif-ek onartzen dituenak). Zapatila hauek errekauxutatuak edo lijatuak izan daitezke baina ezin izanen zaie bestelako manipulaziorik egin (zola artifizialki berotu, hobeto eransteko produkturak eman, e.a.).

Kadete mailako txapelketan berriz, ezin izanen dira zapatila errekauxutatuak erabili, ezta zapatilei inolako produkturik eman ere.

Talde guztiek kontutan hartu beharrekoa:

- Kaxen sistema erabiliko da zapatilendako.
- Gehenez 6 zapatila pare talde, kaxa eta jardunaldi bakoitzeko.
- Kaxak dauden lekura ezin izango da errekauxutatutako zapatila zaharrekin sartu.
- Jardunaldia hasi baino ordu erdi lehenago, taldeko arduraduna batek 6 zapatila pareak epailearengana eramanen ditu errebisatzeko.
- Tiratzera ateratzeko, taldeak kaxetara joanen dira eta zapatilak hartuko dituzte. Tiraldia bukatu ondoren, zapatilak berriro kaxetan utziko dituzte.
- Kaxak begi-bistan egonen dira eta talde bakoitzeko pertsona batek zainduko ditu (nahi dituzten taldekoak). Lehiaketa aurreko beroketa beste zapatila batzuekin eginen da.
- Zapatilen zola garbitzeko trapuak erabiltzen badira, hauek guztiz lehorrak egon beharko dute.

* Sólo se podrá llevar un protector y siempre por fuera de la camiseta.

* Se podrán reforzar las camisetas por la parte exterior con felpa, goma, cuero... Ese material irá pegado/unido/cosido a la camiseta

* **Protectores de los zagueros:** podrán llevar los dos protectores (el de tela y el de cuero). Su protección tendrá un grosor máximo de 5, sin tacos, sin hendiduras, ni cuencas, ni topes etc... La cuerda permanecerá visible en todo momento.

➔ **SUSTITUCION:**

Se podrá aplicar una sola vez.

En el campeonato mixto, si sale una chica tendrá que entrar otra chica y si sale un chico, entrara otro chico. En Cadetes y Sub20 será libre pero siempre garantizando que estará tirando al menos una chica.

➔ **ZAPATILLAS:**

En las categorías absolutas (320, 300, 280-mixto, 255 y 240) y en sub20 se utilizarán zapatillas de suela lisa, las que admite la Twif. Dichas zapatillas se podrán recauchutar o lijar pero en ningún caso se les podrá realizar otra clase de manipulación (calentar de forma artificial la suela, aplicar productos para agarrar mejor en la goma, etc.).

En la categoría de cadetes no se podrán utilizar zapatillas recauchutadas ni tampoco se podrán manipular las zapatillas de ninguna otra forma.

A tener en cuenta por todos los equipos:

- Se utilizará el sistema de cajas para las zapatillas.
- Máximo 6 pares de zapatillas por equipo, caja y jornada.
- Al lugar donde están las cajas no se podrá acceder con zapatillas viejas recauchutadas.
- Media hora antes del comienzo un encargado del equipo llevará los 6 pares de zapatillas al juez para que los revise.
- Para salir a tirar, los equipos irán a su caja y cogerán las zapatillas. Una vez finalizada la tirada, dejan nuevamente las zapatillas en su caja.
- Las cajas estarán en un sitio visible y serán custodiadas por una persona de cada equipo (de los equipos que quieran). El calentamiento previo a la competición se hará con otras zapatillas.
- Si se utilizan trapos o paños para limpiar la suela de las zapatillas, tendrán que estar completamente secos.

- Goman sartu direlarik, alde bateko talde arduradunak aurkariaren zapatilak errebisatu ahal izanen ditu eta alderantziz. Arduradunak susmoren bat badu baina ez baditu aurkariaren zapatilak errebisatu nahi, epailearengana zuzendu daiteke berak begiratu ditzan eskatuz.

➔ **ARROPA:**

Kirol Elkarte bateko talde batek baino gehiagok eman badute izena txapelketan, talde bakoitzak kamiseta desberdinak erabaki beharko ditu. Ezinezkoa bazaie kamiseta desberdinak lortzea, taldea desberdintzeko beste modu bat asmatu beharko dute.

➔ **TIRALDIAK KLUB BEREKO TALDEEN ARTEAN:**

Klub batek kategoria berean bi talde dituenean, lehen tiraldia bi talde horien artean egingen da. Klub bat baino gehiago badira bi talderekin, lehen letrak (A-B, C-D ...) talde hauei adjudikatuko zaizkie zozketa bidez, eta talde bakarrak direnen artean gainontzeko letrak zozketatuko dira. **Klub batek hiru talde dituenean, horiteako bat talde bakarren zozketan sartuko da.**

➔ **FALTAK ETA DESENPATEAK:**

Berdinketa hauste tiraldirik ez da egingen. Jardunaldi guztietan taldeen faltak apuntatuko dituzte epaileek. Sailkapen orokorrean puntuen berdinketa egonez gero, berdinduta dauden taldeen falta kopuruak hartuko dira kontutan. Faltetan ere berdinketa egonen balitz, talde hauen pisua hartuko da kontutan.

➔ **ERREKLAMAZIOAK:**

Arazo edo erreklamazioen bat adierazi nahi izanez gero, taldearen arduraduna BAKARRIK joan ahal izanen da mahaiara, inoiz ez epaileengana.

ARAU OROKORRA:

Talde baten edo bere kide baten iruzur edo tranpa ahalegin baten aurrean, talde hori automatikoki kanporatua izango da jardunaldi horretarako.

Jardunaldi bateko lehiaketaren zehar talde baten kanporatzea ematen denean, talde kanporatuaren aurka egindako tiradetako talde "aurkari"-en puntuak ez dira aintzat hartuko. Hau da, 0 izango dira.

- Una vez que los equipos estén colocados en la goma, el responsable de un equipo podrá revisar todas las zapatillas del equipo contrario y viceversa. Si el responsable tiene sospechas pero no quiere revisar las zapatillas del equipo contrario, puede pedirle al juez que los revise.

➔ **ROPA:**

En el caso de que participen en el campeonato más de un equipo del mismo club, intentarán llevar camisetas diferentes. Si no pueden conseguir camisetas diferentes para cada equipo, tendrán que inventar cualquier otro sistema para diferenciarlos.

➔ **TIRADAS ENTRE EQUIPOS DEL MISMO CLUB**

Cuando un club tenga dos equipos en la misma categoría, las primeras tiradas se harán entre estos equipos. Cuando haya más de un club con dos equipos, las primeras letras (A-B, C-D...) se les adjudicarán a estos equipos mediante sorteo. Las demás letras se sortearan entre los equipos restantes. **Cuando un club tenga tres equipos, uno de ellos entrará en este último sorteo.**

➔ **FALTAS Y DESEMPATES:**

No se harán tiradas de desempate. Los jueces anotarán las faltas de los equipos en todas las jornadas. En caso de empate tras la suma de puntos, se tomarán en cuenta las faltas realizadas por los equipos empatados. Si sigue habiendo empate, se tomará en cuenta el peso de dichos equipos.

➔ **RECLAMACIONES:**

En el caso de presentar alguna queja o reclamación, SOLO el representante del equipo podrá dirigirse a la mesa, nunca a los jueces.

NORMA GENERAL:

Ante cualquier intento de engaño o trampa de un equipo o de uno de sus miembros, ese equipo será automáticamente descalificado para la jornada en curso.

Cuando en el transcurso de una jornada se produzca la descalificación de un equipo, la puntuación de los equipos "rivales" en las tiradas realizadas contra el descalificado será de cero puntos.

ANTOLAKETA:

Garraioa:

Jardunaldi bakoitzeko talde arduraduna arduratuko da materialaren garraioa egiteaz. Lekua Federazioak bilatua bada, jardunaldirik antolatu ez duen taldeek arduratu beharko dute garraioa egiteaz.

Tiraldien prestaketa:

Jardunaldi bakoitzeko talde arduradunak bi pertsona jarri beharko ditu tiraldi bakoitzaren aurretik taldeak bildu eta zozketak egiteko.

Lekua Federazioak bilatua bada, jardunaldirik antolatu ez duen taldeek arduratu beharko dute bi pertsona hauek jartzeaz.

ORGANIZACION:

Transporte:

El equipo organizador de cada jornada tendrá que encargarse del transporte del material. Cuando la jornada está organizada por la Federación, los equipos que no hayan organizado ninguna jornada se encargarán del transporte.

Preparación de las tiradas:

El equipo organizador de cada jornada tendrá que poner dos personas para que se encarguen de reunir a los equipos antes de cada tirada y hacer los sorteos. Cuando la jornada está organizada por la Federación, los equipos que no hayan organizado ninguna jornada se tendrán que encargar de poner estos dos ayudantes.